

Juanito Eizagirre Ulazia

*Getaria,
Gipuzkoa (1930)*

Aurkibidea

Biografia



Herrerieta kaleko "Santinekoa" kale-baserrian jaioa, ondo ezagutu zuen Getariako kale-baserrietako bizimodu gogorra: etxeen egitura deserosoa, lurrak urruti eta txikiak, arraina garraiatzen aritu beharra... Hainbat urtez itsasoan ere jardundakoa da.

Zintak

GET-014

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-11-16
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Kale-baserriak txikiak eta terrenoak etxetik aparte

- **Erref:** GET-014/003
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Kale-baserriak antzekoak izan ohi ziren: ikuilua, gela bat eta ganbara. Kale-baserrietako jendea ere itsasoa ibiltzen zen, baserri txikiak zituzten eta. Kale-baserriek terrenoak ez zituzten paraje egokian izaten eta sarri besteen terrenoak alkitatzen edo erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta gutxi-gorabehera danak antzekuak izango zian, ez? Okoillua...
- A, bai, e...
- Eta gero bizitza, eta...
- Bai, bai, bai, bai, bai...Ez, zergatikan okoillua zeukanai, bizitzeko tokidxa're behar zun uaiñ baiño. Bestela, bajuaguak zian itxiak, e?
- A, bai?
- Hoiek zituzten, hoiek zituzten lehen esan deten bezalaxe, okoillua, habitaziyo bat eta ganbara.
- Ganbara.
- Ganbara. Geo esan dizut ba, guria're, guriai're in zioen beste piso bat eman erre ta geo. Baiña orduan, erre zan denboran, hark'e hori zun: okoillua, beak bizi zian tokidxa eta ganbara.
- Ordun, e, Getaia, nahiz eta arrantzalia izan...
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai...
- ... baserritarak ere asko izango zian kalia bertan, ez?
- Bai, ta e... esan dizuten kale-basarri hoietatikan, kale-basarritik bertatik itsasuan'e ibilitakuak, e, geure aita ere bai, hamasei urtekiñ ibili emen zan hura're itsasuan. Hemen, Higinio hau're bai, itsasuan hori're. Eta Nikasio Galdos hori're bai. Derrior zeon, zergatik toki txikidxa zian. Bi behiei ze atea behar zendun, bi behi. Bi behiek urtian bi txahal iten zituela? Beno, bale. Endrerua gehio zun kale-basarriyak. Baiña harta jarrita zaben aurretik, e...
- Bai.
- ... itxeako esnia izaten zala, ez dakit ze iten zala, ta badakit ze iten zala,

ta dana...

- Eta lurrak'e bai, ez? Soruak eta, eta beti e...

- Bai, bai. Oan... hemen, e..., ez zian danak guria ta bezela terrenuak berenak zituenak ez zian, ez zian danak, ez. Beste batek zelaia, toki txarreko zelaia dala ta, laboreik iteik ez eta "bueno, nik, nik garbituko didxat hori, nik garbituko...". "Beno, garbituta eukitzen baek" errentik'e kobratu ez, beste batek errenta kobratuko zun... Higinio honek, hor, Iturritxiki deitzen zitzaion hortan zelai haundi bat, baiño aldapa bai. Ta, hemen olaskoagatar habek eta're berdin, ta. Ez zian... Toki eroso gutxi zitun kale-basarriak, oso toki eroso gutxi zun.

- Eta esan diazu, zuek'e nahiko urruti, ez?, zenutela, e, ...

- Bai, bai. Esaten dizut, bat han, talaia deitzen zitzaion hartan. Eta hurrengokua, berriz, hurrengoko pusketa han, kanposanto, este, Kanpaia deitzen zitzaion hartan...

- Kanpaia, bai...

- Jeneral, jeneral, itxetikan aparte terrenua kale-basarriak zitun, bai.

- Hemen bertan, Erregeta kalia atzian eta, bazan e...

- E... Hemen, e...

- baatzak, o...

- Egurbidek... A! Guk itxe atzian bagendun baatza, baatza deitzen, uaindikan hala deitzen diou, baatza deitzen diou, baatza txiki bat. Geo, goiko aldeko itxe hoiek'e ez zian orduan ta euzkiya're sartu iten zan, ta iñ iten zan baatza. Uain ez. Uain itzala eoten da, ta ya lagata daukat neuk'e, loria sartu ta ya, ta hola. Baiña, oain lehengo baatza txiki hoidxek eta behekuak, danak deseindu dia. Baatza txikiyak zian hemen, e?! Itxiai zeokion bezela, itxien tiradako terrenuak, batzuk ehun metro, bestiak berrehun metro, holako, holako zeak zituen.

2. Kale-baseritik ezin bizi eta beste lanbideren bat behar

- **Erref:** GET-014/004
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bi terreno hurbilen zituen etxea Egurbide zen. Besteek terrenoak kaletik aparte zituzten. Normalean bi behi inguru izaten zituzten kale-baserriek lekuri ez zuten gehiagorako eta. Baserritik ezin bizi eta beste lanbideren bat behar zuten aurrera egiteko.

Transkripzioa

- Hemen, e, hurriena, bi terreno euki zituna Egurbide. Horrek zitun, hor kanposantoako bire horretan, oain itxiak inda dabe, ta geo mahastiya zeon behian, eta gaiko aldetik. Geo, soro, soo koxkor bat, hor [Putzeko] soua deitzen zioena, ta oandikan horrei Putzoaga deitzen zaio, han dao zeon ta itxian "Kale Putzoaga". Ta horrei, sorokote horrei, Putzoaga deitzen zitzaion. Beste gaiñuntzian danak, ba, terrenuak, e, bire pixkatea junda, bai. Kaletikan ertenda, ertenda.

- Ordun lana're gehio.

- Bai, e, endrerua zun, kalia, kale-basarriak endrerua zuan. Endrerua zuan, e, bat urrutira jun, urrutira o aparte ibili beharra, eta beste batzuk

esan dizut... Bi behiei, gurian bi zian, akaso beste non eo non izango zian hiru, hiru. Gurian sutaidxa're bazan eta [...]tokidxa're bai, eta ez zeon, geo behi askoentzat'e ez zeon tokiik ta. Gurian bi: bi behi, ta bi txahal ta asto bat, han okoilloko gorabehera hori zan. Ta haiei ez zeon ezer ateatzeik! Handik ez zeon familiya zeatzeik. Ama beti zan kontraidxua gurian, baita aita bizi zala're, hemendik ez dao ezer, ta hemendik ez dao ezer...

- Eta itsasoa.

- Ta egidxa, ta. Aita itsasuan ibili ta geo zeatu zan, kale-basarriara geatu zan. Itsasuan ibili ta georo, zergatikan [...] igeri, hamasei urtetikan, e, hogeta hamabira bitartian ibili zala itsasuan. Baiña berrogeta hamarrekin hil zan, ta ni jaio ta geo buelta horretan ta, ta ra, ya... Hemezortzi urte behintzat, hogeta hamabitik, berrogeta hamarrekin hil zan, ta hemezortzi urte hoidxek lehorrian in zitun zergatik zerbait hobexio're bai, herrera, entenditzen? Ta handikan'e zer zeon, ba? Handikan'e ez zeon ezer. Bi herremintak, han, zorroztu ta erdiyak paatu're ez, bestiak...

3. Eizagirre abizenaren jatorria Urrestillakoa

- **Erref:** GET-014/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Eizagirre abizena Urrestillatik omen dator. Urrestillako Eizagirre baserritik etorri omen zen bere birraitona morroi Enbil familiaren etxera, eta, gero, hango emakume batekin ezkondu zen. Bere aitonaren arreba bat Balentziaga jostunaren ama zen. Familiatik omen zetorkion josteko artea.</p>

4. Balentziaga jostuna

- **Erref:** GET-014/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Balentziaga bere amaren adinekoa zen eta, beraz, 50 urte inguru zituela ezagutu zuen. Zerbait zegoenean etortzen zen Getariara. Gizon apala omen zen. Bere lehengusuei urtero txaketa bana oparitzen zien.</p>

5. Hilerriaren zati bat euren lurretan egina

- **Erref:** GET-014/010
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Hilerriaren zati bat euren lurretan egindakoa da. Harrez gero beste bi aldiz handitu dute hilerria beste baserri batzuen terrenoak hartuz. Lehen euren etxearen atarian omen zegoen hilerria. Mahastiak ere baziren ia euren etxeraino eta karabineroen kuartela ere ondoan zuten.

6. Aitari gertatutako pasadizoa

- **Erref:** GET-014/011
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Aitari eskopeta eta karabineroarekin gertatutako anekdota.

7. Hiletetako ohiturak; klaseak egoten ziren

- **Erref:** GET-014/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Berak beti orain dagoen lekuan ezagutu du hilerria. Hiletetan kategoriak egoten ziren. Primerako hiletak apaiz askorekin egiten ziren. Lehen gorputza ez zen elizara eramaten eta hileta goizean egiten zen. Hileta ostean "seiziya" egiten zen.</p>

8. "Probuko" joatea; honen inguruko anekdota

- **Erref:** GET-014/013
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Bere senide baten hiletan gertatutakoa. Semeari esan zioten "probuko" joan beharko zuela eta honek ez zekien horrek ze esan nahi zuen. Gaizki ulertu eta apaizen eta guztien aurretik joan zen hilerrira. Zer zen "probuko" joatea.</p>

9. Kale-baserrietan azpigarria oterekin egiten zuten

- **Erref:** GET-014/015
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:36:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Azpigarria egitera etxetik hiru kilometrora joan behar izaten ziren. Ota lakarrarekin egiten zuten azpigarria. Baserritarrek garoa erabiltzen zuten gehiago. Nolako gurdiak erabiltzen zituzten kalean: gurdi-zorra, gurdi-bolantia..</p>

Transkripzioa

- Eta, kale-basarriyen kontura itzulita, e, esan diazu azpigarriyak eta itea ta...

- Urruti, e?! Hori urruti. Hara juteko bazaben geure etxetik bertatik, bat, bi... hiru kilometro bai! Gaiñea, han Garateko gaiñ hartatik geo pixkat gaiña beste aldea. Oan mahastiya dao han sartuta. Bai, hamen, e..., Aizpurua horrek mahastiya euki behar du sartuta. Han, eta beste beak eabili zuen tokidxa eta... Baiña hiru kilometro bai hemendikan, e!

- Eta, azpigarriya ze izaten zan ordun? E...

- Otia, ote-lakarra hori... Ote-lakarra ta belarra nahastutakua. Ta geo iten zan ebaki ta pixkat lehortzen euki, ta geo ekartzen zan ganauen azpirako, hori.

- Ote-lakarra esan dezu?

- Bai...

- Zer da? Otia...

- Otia, otia deitzen gendun, bai. Otia.

- Eta, orbela ta erabiltzen zan?

- Hori, zukaenak. Daikena ibiltzia, orbela... Baita piñuen zea're. Piñuen orri hori're ibili ohi zuen, azpi-azpitan. Hori jeneralian kale-basarritan, e! Zergatikan basarritan orduan, e, garua, ta...

- Bai.

- Garua ebaki iten zan, ta. Garuakin asko ibiltzen zian orduan basarrikuak, garua ibiltzen zuen asko, ta bestiak otia're bai, baiño garua askoek. Garua ona zan oso, berogarri ona zan oso ganauentzat.

- Kale-basarritan ta ez zeon.

- Ez, ganaua... Kale-basarritan esan dizut, ahal zana, esan dizut ba, otia eo ta... Otia artian txikiya baldin bazeon, ba, piñutik hostro hori're igual, ta. Eskuariakin biltzen zan, eta ekarri, ta. Hori're erabiltzen zan kalia.

- Eta gero gurdiakin ekarri o, lega...

- Bai, gurdiakin, gurdiakin. Kalia ez zan legik, e!

- Ez?

- Basarritan bai legak, baiño... hemen ez. Hemen lehenbizi iten zian gurdi-zorra deitzen zitzaion egurrezko kurpillak ta egurrezko ardatza, ta hoiei gurdi-zorra deitu ohi zitzaion, gurdi-zorra. Geo hasi zian hemen kalia, e, arrai-karritoako ta, gurdi-bolantiak. Gurdi-bolantiak zian, ta geo been llantakin, eta... Ardatza burnizkua, ardatza burnizkua, kurpillak haundiyo, been llantakin. Radi... bizikletakuak radiyo mehe hoiek dituen bezela, bere zeakin... este... nola esango dizuet nik ba zueri... soportiakin. Eta hoidxek, hoidxek sortu zianian kargak'e haundiaguak iyotzen giñuzen arraidxakin zeara, fabriketa. Hemen plazatik gora zian, fabrikak bazian hemen, geo

behian'e bai, ta.
- Eta itxiak zian?
- E?
- Itxiak gurdiyak?
- Zeak, este, gurdiyak itxiyak? Ez, ez.

10. Gurdiekin banatzen zen arraina fabriketara

- **Erref:** GET-014/016
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:36:08. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Arraina gurdietan eramaten zuten fabriketara. Hasieran, 40 kilo inguruko dozena bat otarre; eta, gerora, karga handitu zuten, gurdi-bolanteak agertu zirenean. Aitari laguntzen ibiltzen zeneko anekdota. Normalean, amak laguntzen zion aitari, baina bera ere oso umetan hasi zen.

11. Lehen buru-gainean eramaten zen arraina fabriketara, gero gurdiekin

- **Erref:** GET-014/017
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Bere amaren garaian emakumeek buru gainean eramaten omen zituzten arrain-otarrak fabriketara. Gurdiekin aldapa handiak pasa behar izaten zituzten eta karga handia zenean beste bide batzutatik joaten ziren. Kaleak salitrez beteta egoten ziren.

12. Gari-jotzea herriko frontoian egiten zuten kale-baserri guztiek batera

- **Erref:** GET-014/019
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gari-jotzea frontoian egiten zuten kale-baserrietako gehienek elkarri lagunduz eta garbitu ere egun berean egiten zen makinaren laguntzaz. Etxe bakoitzekoek beren senide eta laguntzaileekin bazkari-legea egiten zuten gero; normalean, olagarro-zopa eta atuna tomatearekin.</p>

Transkripzioa

- Ta gari-jotzia zanian, berriz, gari-jotzia zanian hemen frontoian jotzen zan gariya.
- A, bai?
- Hemen, e...
- Kale-baserriyeko gariya...
- Bai, bai, bai. Danak alkarrei lagunduta nola iten zan... Bai, nik zuri lagundu, ta bestiak nei, ta bestiak eta danak... Danak behintzat ondo zeatzen zian. Hemen Egurbide ta hoidxek ez. Egurbide ta hoidxek been itxe-ataidxan jotzen zuen. Eta geo bestia, Ostolaza ta hoidxek'e bai, goitik jotzen zuen. Ta zean, hemen plazaz behekuak, hemen, e, Aranguren, Olaskoaga, Ibarbia, ta hemen Galdos, eta hemen Goikoetxea ta hauek, hemen, frontoian jotzen zuen. Frontoian jotzen zuen. Hori nik mutil-koxkorretan ezautzen det. Ta baita geo, hor garidxa jotzian lasto-karreeta ta hortxe ibiltzen giñan, mutil-koskorrak.
- Eta, danak batea?
- Bai, bai. Horkuak danak batea.
- Egun bat hartu ta egun horretan...
- Bai, bai. Listo gu, ekartze... euna baiño, euneako ekarrita eoten zian hemen gurdidxak, gurdi pillua, danak lastoz kargauta. Frontoian kabitzen ez zianak kamidxuan... transporteik, kamioik, automobillak eta enbarazuik batez, ta, hola eon ohi zian. Ta holaxe zeatzen zan ordun. Eun bat horretako.
- Horretako.
- Ta geo izaten zan, ba, gariya jo, ta geo gariya garbitzeko zea're bai, deitzen zitzadxa'ne bai.
- Makiñak?
- Bai. Eskuakin eraginda, e! Eskuakin... Makinak... eskuakin eraginda! Garidxa batea ta azala bestea botatzen zun...
- Eta...
- Nola deitzen zitzaion harei? Gari-garbitzeko makina, bai. Makina deitzen zitzaidxon orduan.
- Eta hori're egun horretan iten zan?
- Bai, bai.
- Jo eta garbitu.
- Bai, bai, bai, bai. Ta geo esaten dizut, ba, bakoitzak beria jaso, ta...
- Eta jaien bat iten zan?
- E?
- Jaia, o?
- Astian, astian iten zan hori, e?
- Astian.
- Astian iten zan hori.
- Baiña ez zan izaten gero, e, afariya o?
- Hori geo eun berian, eun berian afaidxa, segun... danak, danak gaur hemen ta bihar hor, ez zan iten hori. Zurekin launtzea jun [...] zergatik beak bakarrik'e ez zian moldatzen, entenditzen? Geo laguntzaillak'e behar izaten zituen gehidxo. Igual itxe batetikan bestiai, gizona itsasuan zalako, igual bat eo, bi o... baiño biek ezin laike [...]. Ta geo bestetikan, ta hola, juntatu. Ta geo horretaz gain, familiko bat o beste juntatu ohi zian, eta nik

nere familikuak nik hartuko ditut, bestiak bere familikuak [...] han hartuko ditu. Ta bakoitzian zortzi hamar bat eo zianak eo zeatu, ta hola moldatzen zan, e! Hola, hola iten zan jatordua.

- Jatordua izaten zan, e...

- Bai...

- ... bazkaia?

- Bazkai-legia, bazkai-legia... o olaarru-zopa... Jenealen olaarru-zopa.

- Olaarru-zopa, e?

- Olarru-zopa, atuna tomatiakin... hori behintzat tipikua izaten zan.

- Udaan izaten zan?

- Bai, ba. Udaan, udaan. San Pedruak pasa ta, hori, e... ekaiñen bukaeretan eo hola. Zergatik garidxa ebakita're puxka baten euki iten zan metak inda, ta, bai. Horrela.

- Bai. Eta, olaarru-zopa?

- Olaarru-zopa tipikua zan. Gari-jotzetan olaarru-zopa tipiku, ta atuna tomatiakin bestia. Zergatik marmitakuik eta ez zan zeatzen, artian ez zan erabilitzen, ez.

- Eta eateko? Txakoliña o, saardua?

- Ardua, jeneal. Umiak ez, umiai ura ematen zioen. O bestela ur-ardua. Baiño...

- Ur-ardua.

- Bai. Baiño beak ardua erango zuen noski, nik uste det, bai...

13. Etxerako lain egiten zen lehen txakolina

- **Erref:** GET-014/020
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lehen askoz txakolin gutxiago zegoen. Etxerako lain bakarrik izaten zuten eta txokoetan bakarrik izaten zituzten mahastiak. Ardo beltza ere egiten zen, baina dolareari tinta pegatzen zion eta gero txakolinari itsasten zitzaion tinta hori.

14. Ardoa edatea kategoria zen, dirurik ez zegoen eta

- **Erref:** GET-014/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Orduan txakolindegia gutxi zegoen: Oskiolakoa eta San Prudentziokoa. Sagardotegiak gehiago ziren. Lehen ez zegoen kanpoan bazkaltzeko ohiturarik, ekonomikoki justu ibiltzen ziren eta. Ardoa edatea kategoria zen.

15. Apuila, apuilaka eta oinka jolasten ziren, baina gehien pilotan aritzen ziren

- **Erref:** GET-014/023
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:49:38. **Bukatu:** 00:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Orduko jolasak: apuila-apuilaka (elkar harrapatzen), oinka (zeinek besteari lehenago oina zapaldu), kukuka.. Baina pilotan aritzen ziren gehien.

16. "Potxetan" entretenitzen ziren moila aldeko mutikoak

- **Erref:** GET-014/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:52:08. **Bukatu:** 00:53:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"Potxetan": txalupa-mutil zebiltzanen entretenimendua. Orduan, sarearekin harrapatzen zen arraina. Arraina "mailatzen" zenean, "despeska" egiten zen gero (arraina saretik libratu). Gelditzen ziren hondakinak uretara botatzean, arrain ugari hurbiltzen zen hura jatera. Arrain haiek harrapatzeari deitzen zioten "potxetan".

17. Getarian hiru zati: baserritarrak, plazatarrak eta moilatarrak

- **Erref:** GET-014/025
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:53:44. **Bukatu:** 00:54:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Getaria hiru zatitan banatuta zegoen: baserritarrak, plazatarrak eta moilatarrak. Pikeak ere egoten ziren batzuen eta besteen artean.

18. Arrain txikia Donostiara eta handiagoa fabrikara

- **Erref:** GET-014/027
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:00:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

46tik 48ra bitartean sardinetan ibiltzen ziren udaran. Martxo inguruan ardora-arraina harrapatzen zen, txikiagoa. Arrain fresko eta txikiagoa Donostiara eramaten zen eta haundiagoa Oriora fabrikara. "Ardoran" gauez harrapatzen zenari deitzen zitzaion.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com